

INGURUMEN-JASANGARRITASUNAREN 2003ko URTEKO TXOSTENA

**Garapen Jasangarriaren 2002-2020ko Euskal
Ingurumen Estrategiaren segimendua eta ebaluazioa**

2003ko ekainaren 3a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	1
2. EUSKAL INGURUMEN-POLITIKAREN TESTUINGURUA	2
2.1 GARAPEN JASANGARRIAREN KONTZEPTUAREN HASIERA ETA BILAKAERA	2
2.2 GARAPEN JASANGARRIA EUSKAL JARDUERA POLITIKOAN SARTZEA ...	4
3. INGURUMEN-ESTRATEGIAN EGINDAKO AURRERAPENAK	5
3.1 INGURUMEN-XEDEAK LORTZEKO JARDUERA NAGUSIAK	6
3.2 JASANGARRITASUNAREN BIDEAN AURRERA EGITEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK INDARTZEKO JARDUERA NAGUSIAK	13
4. ONDORIOAK	18



1. AURKEZPENA

Garapen Jasangarriaren 2002-2020ko Euskal Ingurumen Estrategia 2002ko ekainaren 4an onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Estrategia horren helburua da EAEko gizarteak lortu beharreko ingurumen-xedeak finkatzea, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe, uneko belaunaldien bizi-kalitate eta aurrerapen egokiak lortzea bermatzeko moduan.

Estrategiaren barruan, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak konpromisoa hartu zuen jasangarritasunaren alorrean egindako aurrerapenak islatzen dituen dokumentua urtero ekainaren lehen astean Gobernu Kontseiluari aurkezteko; azterketa horrek bi ardatz nagusi izan behar ditu:

- Estrategian finkatutako konpromisoak oinarri hartuta gauzatu diren jarduerak.
- Ingurumen-jasangarritasunari buruzko Gobernuaren balorazio orokorra, epe motzera finkatutako erronka nagusiak zein diren adieraziko diguna.

“Ingurumen Jasangarritasunaren 2003ko Urteko Txosten” hau, beraz, Estrategia onartu zenetik pasatu den lehen urtean egindako aurrerapenen berri emateko hartutako konpromisoa da. Txostena irakurri ondoren ondoriozta daitekeen bezala, azken ondorioa esaldi honetan labur daiteke:

“Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia martxan jarri da eta hasi da lehen emaitzak ematen. Hala ere, finkatutako xedera iritsi nahi badugu eta Estrategia 2006an berrikusiko dela kontuan hartzen badugu, sail guztiek ausarkiago egin behar ditugu finkatutako konpromisoak betetzeko gure apustuak”.



2. EUSKAL INGURUMEN-POLITIKAREN TESTUINGURUA

2.1 GARAPEN JASANGARRIAREN KONTZEPTUAREN HASIERA ETA BILAKAERA

Garapen jasangarriari buruzko lehen sistematizazio eta formulazio teoriko handia “**Brundtland txostena**” izan zen; txostena 1987an argitaratu zuen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordeak “Gure etorkizun komuna” izenburuarekin. Txosten horretan, garapen jasangarria honela definitzen da: “*personen gaur egungo premiak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek haien premiak asetzeko izan beharreko gaitasuna arriskuan jarri gabe*”. Batzordeak ingurumenaren bektorea garapenaren barruan sartu zuen eta garai hartan berriak ziren ingurumen-arazoak (adibidez, ozono-geruza suntsitzea edo berotze globala) nabarmendu zituen. Txostenak gure bizitza mehatxatuta dagoela ohartarazten du, eta beharrezkoa dela politikoei eta herritarrek haien jokaera eta bizi-estiloa aldatzea, mundu osoko gaur egungo belaunaldien eta etorkizuneko ongizateari begira, printzipio-, helburu- eta jomuga-multzo berria osatzeko.

Hala ere, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian –*Lurraren Goi-bilera*-, **Rio de Janeiron 1992an egin zen bileran**, zabaldu zen garapen jasangarriaren kontzeptua munduan. “Rioko Deklarazioko” 27 printzipioek “*garapen jasangarriarekin lotutako kezka guztien erdian*” jartzen dute gizakia. “Rioko Deklarazioak” esaten du ingurumena babesteak garapen-prozesuaren zati izan behar duela eta ez dela era isolatuan hartu behar, eta estatu eta pertsona guztiei aholkatzen die pobrezia aurre egiteko funtsezko lanean lagun dezaten, garapen jasangarriko ezinbesteko baldintza gisa. Gainera, hauxe nabarmentzen du: “*bakea, garapena eta ingurumenaren babesa elkarren menpekoak eta ezin bananduzkoak dira*”.

Deklarazio garrantzitsu horrez gain, Konferentzian garrantzi handiko gauza gehiago ere lortu ziren, esate baterako, Klima Aldaketari buruzko eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazioarteko Hitzarmenak edo “Programa 21”. Programa hori “*garapen jasangarriko mundu-elkarte*” baten proposamena da, eta (“*batez ere eta bereziki*”) maila guztietako gobernuei zuzenduta dago, baina baita nazioarteko eta eskualdeko erakundeei eta gobernu kanpoko erakundeei ere; izan ere, ahalik eta herritar gehienek parte hartzea bultzatu behar da garapen jasangarria inplementatzeko ekintza-plana definitzeko. “Programa 21”-ek eskaera berezia egiten die herrietako agintariei, haien “parte-hartzea eta lankidetzak” faktore erabakigarriak baitira garapen jasangarriaren helburuak lortzeko. “Programa 21” hori udalerrietan aplikatzen denean, “Tokiko Agenda 21” deitzen zaio.

Europar, Amsterdamgo bilera arte (1997) ez ziren hasi ingurumena Batasunaren politikaren barnean sartzen; garai hartan, **Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean 6.** artikulua aldatu egin zuten, hauxe finkatzeko: “*ingurumena babesteko eskakizunak Erkidegoko politiken eta ekintzen definizioan eta horiek gauzatzeko fasean sartu behar dira... batez ere garapen jasangarria sustatzeko*”.

Erkidegoko prozesua **Gotenburg-eko Europako Kontseiluan** (2001eko ekaina) iritsi zen maila gorenera; orduan, hauxe baieztatu zen: “*garapen jasangarria Itunen funtsezko helburua da, eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-politikak elkarrekin erabiltzea eskatzen du*”. Kontseiluak “*Garapen Jasangarriko Europako Batasuneko*



Estrategia” adostu zuen eta estatu kideei garapen jasangarrirako haien estrategiak sortzeko gomendatu zien, eta Gai Orokorren Ministro Kontseiluari agindu zion lanak koordinatzeko. Europako Kontseilu hori bildu eta hilabetera, “Ingurumenaren alorreko Seigarren Ekintza Programa” onartu zuten, 2002-2012 urte-bitarterako strategiaren ingurumen-lehentasunak eta -ekintzak zehazten dituen dokumentua.

Jasangarritasunerako Europako strategiaren arabera, garapen jasangarria arduradun politiko guztien agintaritzaren erdian kokatu behar da, politika sektorialen inkongruentziak eta epe laburrean lan egin behar izatea gaindituta. Garapen jasangarria Europako arduradun politikoen (estatukoak, eskualdekoak eta herrikoak) oinarritzko zeregina da, baina *“garapen jasangarrirako estrategia batek arrakasta izatea kontsumoaren, ekoizpenaren, lanaren eta garraioaren alorretan milioika pertsonak egunero hartzen dituzten erabakien baitan egongo da”*.

Garapen jasangarriaren kontzeptura egindako hurbilketa historiko labur honetan, nahitaez nabarmendu behar da 2002ko abuztuaren 26tik irailaren 4ra **Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera** egin zela **Johannesburg-en**. Bilera hartan, 192 estatuk, eskualdek eta herri mailako hainbat gobernu eta gobernuz kanpoko erakunde askok parte hartu zuten. Goi-bileran *“Johannesburg-eko Deklarazioa”* eta anbizio handiko “Ekintza Plana” egin ziren, baina balantze orokorrak ez zituen ase bilera horretarako finkatuta zeuden itxaropen guztiak, eta 2005era arte luzatu zuten hiru alderdiak (ekonomia, gizartea eta ingurumena) integratuta Garapen Jasangarrirako Estrategia egiteko konpromisoa. Hori dela eta, XI Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen Batzordeak New York-en 2003ko maiatzan egindako saioa ere aipatu behar da. Bilera hartan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko ordezkariak egon ziren, eta Johannesburg-en onartutako Ekintza Planean finkatutako helburuen zehaztapenean aurrera egin zen.

Hala ere, eskualdeetako eta herrietako gobernuak deklarazio bana onartu zuten, eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek protagonismo handia hartu zuten, garapen jasangarriaren printzipioak balio etiko eta solidarioetatik, parte-hartzearen baliotik eta arduraren eta arretaren baliotik berresteko. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak eta munduko hainbat lekutako eskualde mailako beste 22 gobernuak **“Gauteng-eko Deklarazioa”** onartu zuten; zortzi puntuko agiria da deklarazio hori eta nazioarteko erakundeen, tokiko gobernuen eta gainerako eragile sozialen *“bazkide solidario eta ezinbesteko”* gisa garapen jasangarriarekiko gobernu horien konpromisoa adierazten du.



2.2 GARAPEN JASANGARRIA EUSKAL JARDUERA POLITIKOAN SARTZEA

Rio de Janeiroko Goi-bileratik, garapen jasangarriaren kontzeptuak, besteak beste, planak eta arauak sorrarazi zituen Euskal Autonomia Erkidegoan ere, baina **Ingurumena Babesteko Lege Orokorra** (3/1998 Legea) da Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan garatutako ingurumen-politika guztietarako garapen jasangarria helburu gisa finkatzen duena. Legeak dioenez, airea, ura, lurra, paisaia, flora eta fauna modu jasangarrian erabiliko dira (1. artikulua), eta etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe egungo premiak asetzen dituen garapen jasangarria bermatzeko konpromisoa bere egiten du (2. artikulua).

Horren inguruan, Lehendakariak “**Jasangarritasunaren aldeko Euskal Konpromisoa**” sinatu zuen 2001eko urtarrilean eta erakundeei, herritarrei eta gizarteko sektoreei proposatu zitzairen helburu honekin: “*gure bizi-kalitatea jasangarritasunaren oinarrietan eraikitzea: ongizate ekonomikoa, justizia soziala eta ingurumen garbi eta osasungarria*”; konpromiso hori sinatzeak esplizitu bihurtzen du ingurumena aldagaia sartuta garapen jasangarriaren eredu berriaren oinarriak finkatzeko asmoa.

Hala ere, 2002ko ekainean, “**Ingurumen Jasangarriaren 2002-2020ko Euskal Ingurumen Estrategia**” onartu zenean zehaztu zen ingurumenaren dimentsioa garapenaren kontzeptuaren barruko zati gisa Euskal Autonomia Erkidegoko ekimen politikoan. *Estrategia* horretan, ingurumen-xedea eta -baldintza batzuk finkatu ziren, eta batez ere horiek bultzatu behar ditu Euskal Administrazio Publikoak Euskal Autonomia Erkidegoak ingurumenaren alorrean aurrera egiteko, “*Ingurumen Jasangarriko Europako Batasuneko Estrategia*” txostenean jasotako xede eta helburuekin eta 2001ean gure autonomia-erkidegoko Ingurumen Diagnostikoak aztertutako ingurumen-gai garrantzitsuekin bat etorrita.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020	
Xedeak:	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak izan ditzagun bermatzea 2. Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua 3. Natura eta Biodibertsitatea babestea: sustatu beharreko balioa 4. Lurraldeen arteko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua 5. Klima-aldaketaren gaineko eragina mugatzea
Nahitaezko baldintzak:	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurumen-aldagaiak beste politika-alor batzuetan kontuan hartzea 2. Indarrean dauden legeak eta horien aplikazioa hobetzea. 3. Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea 4. Herritarrak, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzukizunkide bihurtzea eta beren jokabideak jasangarritasun handiagoari begira aldatzea 5. Ingurumenari buruzko ikerkuntza, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea



3. INGURUMEN-ESTRATEGIAN EGINDAKO AURRERAPENAK

Garapen Jasangarriaren 2002-2020ko Euskal Ingurumen Estrategian 2020. urtera bitartean gauzatzeko 223 konpromiso aipatzen dira, finkatutako Ingurumen Helburuak eta Nahitaezko Baldintzak lortzeko. Dokumentu estrategiko horretan jasotako jarduera-konpromiso bakoitza gauzatzeko, denbora-tarte bat zehaztu da. Epemuga gisa 2002ko ekitaldia duten konpromiso gutxi badaude ere, ekitaldi horretan hainbat jarduera jarri dira martxan, horien konplexutasuna dela eta, zenbait ekitaldi beharko dituztenak gauzatzeko.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiaren segimendua eta ebaluazioa errazago egiteko, 223 konpromiso horiek **Konpromiso Kuantitatibotan** sailkatu dira batetik (hau da, adierazle batekin lotutako konpromisoak, adibidez, “2006. urterako, baloriza daitezkeen altzairutegietako zepen % 50 balorizatzea”) eta, bestetik, **Konpromiso Programatikoak** (jarduera zehatz batekin lotutako konpromisoak, adibidez, “2003an, Arriskutsuak ez diren Hondakinen Plana onartzea”).

Helburuen amaieran dauden koadroetan, 2002tik 2006ra bitarterako finkatutako 141 Konpromiso Programatikoetan egindako aurrerapenen ehunekoak aipatzen dira. Konpromiso kuantitatiboak urtero egiten diren estatistiken baitan daude; beraz, eta behar adina datu ez dugunez, ez dira lehen txosten honetan sartu.



3.1 INGURUMEN-XEDEAK LORTZEKO JARDUERA NAGUSIAK

1. xedea: Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak izan ditzagun bermatzea

2002ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- Gure ibai eta itsasoetako uren kalitatea eta arnasten dugun airearen kalitatea hobetzeko eta lurzoru poluituak berreskuratzeko joera nabarmena.

Garapen Jasangarriaren 2002-2020ko Euskal Ingurumen Estrategian inguruneak (airea, ura eta lurra) hobetzeak lehentasuna du. Horretarako, zenbait eremutan mailakatuta martxan jarri beharreko jarduera-multzo koherente bat garatzeko beharra aipatzen du.

Eusko Jaurlaritzaren sailek eta beste erakunde publiko batzuek (batez ere, foru-aldundiek eta udalek) jarduera ugari jarri dituzte martxan, eta, jarduera horiei esker, ingurumena babesteko bitarteko garrantzitsuak definitzeko oinarriak finkatzen ari dira, besteak beste, hauek: **“Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa”**, **“Euskal Autonomia Erkidegoko Higadura Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Plana”** edo **“Elikadurako Intoxikazioak eta Infekzioak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plan Integrala”**.

Hala ere, ekitaldi honetan gehien garatu den jarduera lurzoru poluituak kudeatzeko eta berreskuratzeko esparru arautzailea eta erregulatzaila egitea izan da. Esparru horretan egindako lanaren ondorioz, **“Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzorua Babesteko Legearen”** zirriborroa egin da. Zirriborro horren helburua da gure erkidegoko lurzoruaren babesa normalizatzea eta ekintza antropikoen ondoriozko poluzioa prebenitzea; horrez gain, lurraldean dauden lurzoru poluituei eta hondatuei aplikatu beharreko erregimena finkatu du, ingurumena eta gizakien osasuna zaintzeko.

Jarduera horrez gain, ezinbestekoa da ekitaldi honetan ingurumenaren hobekuntzan eragin handia izan duten eta datozen ekitaldietan izango duten jarduerak ere nabarmentzea. Adibidez, **“Produktuetan ingurumen-irizpideak erabiltzea sustatzeko programa”** egitea.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak ingurumen-segimendurako eta -zaintzarako ekimen garrantzitsua jarri du martxan: **“EPER Euskadi”**. Proiektu horren helburua hau da: Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen (IPPC izenez ezagutzen dena) I. eranskinean aipatzen diren jarduerak garatzen dituzten euskal erakundeek egindako isurpenei eta isurpen horien iturriari buruzko ingurumen-informazioa modu normalizatuan eskuratzea. EPER Euskadik sistematikoki jasoko ditu, *Isurpen poluitzaileen Europako inbentarioa (EPER)* egiteko asmoaren barruan, Europako Batasunari jakinarazi beharreko lehen 50 gai poluitzailearen datuak.



Koadro honetan 1. xedean 2006ra arte ezarritako 22 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen du.

1. XEDEA Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak izan ditzagun bermatzea							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
4	% 18,2	12	% 54,5	6	% 27,3	0	% 0,0

2. xedea: Natur baliabideak eta hondakinak arduraz kudeatzea

2002ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- Natur baliabideen kontsumoa (ura, energia, materialak eta lurzorua) nabarmen ari da hazten.
- Bai hiri-hondakinen, bai hondakin arriskutsuen kudeaketak hobera egin badu ere, geroz eta gehiago sortzen dira.

Hondakinak sortzeko garaian prebentzioa kontuan hartzea (eta, besterik egin ezin denean, horiek behar bezala ezabatzea) eta natur baliabideen (materialak, energia, ura eta lurra) kontsumo arduratsuan aurrera egitea dira Euskal Ingurumen Estrategian lehentasuna duten helburuak. Horren barruan, 2002-2006 epe operatiboan, xede hori lortzeko jarduera programatiko batzuk egitea aurreikusten du.

Lehenik eta behin, **"Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa Planaren (2003-2006)"** zirriborroa amaituta dagoela nabarmendu behar da. Plan hori "Hondakin Berezien 1994-2000ko Kudeaketa Planaren" berrikusketa da. Planak hondakinak kudeatzeko ikuspegi berri bat sartu du: alderdi kualitatiboetan zentratzen da eta hondakin arriskutsuen tratamenduan kalitate hobea lortu nahi du, gaikako bilketa hobetuta eta tratamenduetarako teknika aurreratuak erabilita. Azken batean, hondakinetan dauden bitartekoak erabiltzean, ingurumen-inpaktu gutxiago izatea eta eraginkortasuna hobetzea lortu nahi da. *Plan* horretan Europako Batzordeak eta Kontseiluak Europako Hondakin Katalogoan sartutako aldaketak kontuan hartu dira. Plan hori egiteko, Eusko Jaurlaritzak inplikaturako eragileek laguntzeko eta parte hartzeko bideak ezarri ditu.

Horren osagarri, lurralde historikoek hondakinak kudeatzeko bitartekoak lantzeko zereginean aurrera egin dute. Dinamika horren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak **"Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2012ko Plan Orokorra"** egin du, haren eskumeneko eremurako; plan horretan, lurraldeko hiri-inguruetan sortutako hondakinen ingurumen-tratamendu eraginkorrerako beharrezkoak diren oinarriak finkatu eta jarduerak (publikoak eta pribatuak) identifikatu dira. Plan hori, Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoek aurretik onartutakoarekin batera, etorkizunean **"Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Hondakinen Plana"** osatuko duten jarraibideen muina izango da; plan hori 2006ko ekitaldirako egitea aurreikusi da Estrategian.



Hondakinen kudeaketa arduratsua lortzeko lan-esparru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren eta arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko plangintzari begira jarduera batzuk gauzatu ditu Eusko Jaurlaritzak 2002ko ekitaldian. Gaur egun idazten ari diren **“Arriskutsuak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen Plana”** 2003ko ekitaldian onartu nahi da; hala ere, aurten promulgatu dira plan horri lotutako zenbait ekimen, esate baterako, otsailaren 19ko Dekretua, **“Zepen kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan”** gaiari buruzkoa edo, hondakin sanitarioen esparruan, martxoaren 26ko 76/2002 Dekretua, osasun-zentroek sortutako hondakinak kudeatzeko kondizioak arautzen dituen.

Azkenik, natur baliabideen kontsumoari dagokionez, Euskal Administrazioak (bai Eusko Jaurlaritzak, bai foru-aldundiek eta udalek) garatutako funtsezko lana hauxe izan da: energia eta ura aurrezteko, inplikaturako sektoreak **ingurumen-gaietan sentsibilizatu eta hezteko kanpaina** garrantzitsuak egitea. Gainera, **ura baliabidearen azterketa ekonomikoarekin** lotuta martxan jarritako lanak nabarmendu behar dira; lan horien helburu nagusia da baliabideak eskuratzeko, tratatzeko eta saneatzeko kostu guztiak (finantzarioak, ingurumenekoak eta baliabideei dagozkienak) prezioan sartzea (2000/60/EE Arztearaua).

Koadro honetan, 2. xedean 2006ra arte ezarritako 13 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

2. XEDEA Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
2	% 15,4	5	% 38,5	3	% 23,1	3	% 23,1



3. xedea: Natura eta Biodibertsitatea babestea

2002ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren % 20 Natura 2000 sarean (Habitat Arteztaraua eta Hegaztiak Arteztaraua) sartzeko proposamena eginda dago

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiaren hirugarren lehentasunak gure herriko biodibertsitate biologikoa sendotzearekin, sistema naturalen erabilera jasangarriarekin eta gure inguru naturaleko paisaien barietatea baloratzearekin du zerikusia. Hori guztia giza inguruaren funtsezko elementu gisa, ondare komun natural eta kulturalaren aniztasunaren adierazpen gisa eta gure lurraldearen identitatearen oinarri gisa hartuta.

Helburu horiek lortzeko, Estrategiaren barruan, kontserbazio eta babesaren, berreskuratzearen eta ikerketa eta sentsibilizazioaren alorretako jarduera-sare oso bat dago. 2002. ekitaldian, eremu horietan jarduera ugari eta garrantzitsuak gauzatu dira, eta, haien eraginarengatik eta gauzatzeko-mailarengatik, hauek nabarmendu behar dira jarduera horien artean:

Lehenik, plangintzaren alorrean, behin-behinean, **“Hezeguneen Lurraldeko Plan Sektoriala”** onartu da; baita **“Itsasertza Babesteko eta Antolatze Lurraldeko Plan Sektoriala”** delakoari dagokion aurrelana ere. Bi plan horiek bi espazio-mota horien erabilera eta kudeaketa arautzeko egin dira, eta naturaren aldetik interes handiagoa dutenak babesteko figura espezifikoak sortu dira.

Ildo berean, 2002ko ekitaldian, azken urteotan bezala, ahalegin handia egiten segitu dute euskal erakundeek **Habitat Arteztarauak eragindako lehentasunezko eremuetako ingurumena leheneratzeko**. Bereziki, martxan dagoen berreskuratze integralaren jarduera horren onurak jaso dituztenak hiru gune dira: Gipuzkoan, Hondarribiko Jaizubia ibarreko padurak eta Debako ibarra eta, Bizkaian, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Axpe urmaela.

Erregulazioei eta araudiei dagokienez, 2002ko ekitaldian **“Ingurumenaren aldetik ahulak diren guneen eta mehatxatutako espezieen katalogoa”** delakoaren kartografia eta zerrrenda egin dira, EAEko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legea aplikatzeko. Horren osagarri, **“Gune natural babestuen euskal katalogoa”** ere egin da, eta Natura Kontserbatzeko 16/1994 Legean aurreikusitako irudiez gain, Urdaibaiko Biosfera Erreserba eta Txingudi Badiako Plan berezia ere jasotzen dira.

Hala ere, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiaren konpromisoan finkatutakoaren arabera garatutako ingurumen-plangintza, -legeria, -ikerketa eta -zaintzaren lan garrantzitsu hori guztia baldintzatuta egon da Galiziako kosta atlantikoaren parean **“Prestige” petrolio-ontzia urperatu izanak sortutako hondamendi ekologikoaren** ondorioz.

Istripu izugarri horrek kostaldeko gure ekosisteman ondorio dramatikoak eragin zitzaizkeen arren, euskal instituzioen eta mota guztietako eragile eta erakunde sozialen jarduera azkarrari eta koordinatuari esker, isurpenaren garrantzia arintzea lortu da gure



kostaldean. Hasiera-hasieran, Euskal Administrazioaren *Instituzioen arteko Batzordea* sortu zen krisiari aurre egiteko, eta, lehen isurpenak kostara iritsi zirenerako, hondartzak garbitzeko plan berezia jarri zen martxan. Batzordeak fuela itsasoan bertan jasotzearen aldeko apustua egitea erabaki zuen, eta euskal arrantza-flotan aurkitu zuen babesa. Horrela, orain arte 20.000 tona fuel jaso dira itsasoan, eta 1.800 tona jaso dira lurtean.

Horrekin batera, Batzorde hori babesteko, *Adituen Taldea* sortu zen eta Administrazioak, unibertsitateak, gobernuz kanpoko erakundeek eta beste hainbatek parte hartu zuten. Talde horrek kostalderako eta estuarioetarako Ekintza Plana egin zuen, eta datozen hiletan ere gauzatuko da plan hori.

Beraz, *Prestigeren* krisian euskal administrazioek egindako lan garrantzitsuak minimizatu egin du horrek ingurumenean izan zitzakeen ondorioak.

Koadro honetan, 3. xedean 2006ra arte ezarritako 27 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

3. XEDEA. Natura eta Biodibertsitatea: sustatu beharreko balioa							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
6	% 22	12	% 44	8	% 30	1	% 4

4. xedea: Lurraldeen arteko oreka eta mugikortasuna: Ikuspegi bateratua

2002ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- Garraioaren sektoreak ingurumenean egiten duen presioa handitu egin da, hazkunde ekonomiko guztiari egiten dion ekarpenarekin alderatuta.
- Azken urteotan, lurzoruaren okupazio artifiziala handitzen ari da.

Ingurumen Estrategiaren lehentasunetako bat da lurralde orekatuagoa sendotzeko behar diren jarduerak egitea; oreka horren bidez, interes orokorreko jarduera sozial eta ekonomikoak bideragarriak izatea lortu behar da, eta horrek gure herrialdeko hiriguneko, landako eta kostako ondarea, dibertsitatea eta aberastasun natural eta kulturala zaintzea bermatu behar du. Halaber, garapen ekonomikoaren eta mugikortasunerako beharrezkoen arteko lotura etetea du helburu.

Xede honekin lotuta Estrategian hartutako konpromisoak betetzean aurrera egiteko garatutako jarduera ugarietz gain, bai Eusko Jaurlaritzak, bai foru-aldundiek mugikortasunaren esparruko dokumentu programatiko garrantzitsuak bukatu dituzte ekitaldi honetan.

Horren inguruan, *Euskadiko Garraio Politika Bateratua 2002 - 2012* delakoaren barruan, Eusko Jaurlaritzak **“Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio**



Jasangarriaren Gida Plana” garatu du; plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko epe ertain eta luzerako garraio-plangintza integralerako lehen saiakera da. Ingurumen jasangarritasunaren ikuspuntutik, Plan horretako helburu nagusiak hauek dira: garapen ekonomikoaren eta garraio-eskaeraren igoeraren arteko lotura etetea eta irisgarritasun unibertsala lortzea; horretarako, garraiobideen arteko oreka sustatu behar da, garraio-eredu jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena lortzeko aurrera egiteko modua egon dadin.

Bestetik, lurraldearen garapen orekatua eta sozialki kohesionatua lortzeko beharrezkin lotuta, garrantzitsua da nabarmentzea Lurralde Antolamenduko Planean aurreikusitako plan asko bideratu direla. Lurralde-plan partzialei eta gure gune funtzionalen edo eskualdeen dokumentu integralei dagokienez, ekitaldi honetan Lurralde Antolamenduko Jarraibideetan aurreikusitako 15 planetatik 7ren hasierako onarpena gauzatu da eta beste 4 jendaurrean jarri dira; halaber, Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako eta etxebizitzako sustapen publikorako lurzorua publikoki sortzeko Lurraldearen Plan Sektorialak izapidetzeko aurrerapausoak eman dira.

Bestetik, bai Bizkaiko Foru Aldundiak, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak estrategia bana garatu dute haien lurraldeetan motorrik gabeko garraioa sustatzeko: Bizkaiko **“Bizikletaren Plan Nagusia 2003-2016”** eta Gipuzkoako **“Bizikleta Bideen Sarearen Plana”**; bi plan horietan bizikleta-bideen sarea osatuko luketen ibilbide nagusiak finkatzen dira eta garraiobide alternatibo gisa ibilgailu hori erabiltzea sustatzea bultzatu nahi dute, batez ere desplazamendu motzetarako ibilgailu pribatuaren ordezkotzat erabiltzeko.

Inpaktu garrantzitsua duten eta ekitaldi honetan garatu diren beste jarduera bat **harrobieen ustiapenen prozesu arautzailea** sendotzea izan da; horren barruan, harrobi guztien ustiapen-proiektuak aurkezteko eskatu da, baita berme- eta abal-sistema bat aurkezteko ere, berreskuratze egokia bermatzeko kontrol-bitartekoak izateko.

Koadro honetan, 4. xedean 2006ra arte ezarritako 20 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

4. XEDEA. Lurraldeen arteko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
5	% 25	11	% 55	3	% 15	1	% 5



5. helburua: Klima-aldaketaren eragina

2002ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- 2001eko ekitaldian hobekuntza nabari den arren, gorako joera dagoela ikusi da Berotegi Efektua eragiten duten Gasen emisioan (1990-2001).

Klima-aldaketa arazo globala da eta ingurumenean sortutako presio eta inpaktuak berez zuzentzeko itxaropenak urriak dira. Euskadik badaki nazioarteko komunitateak Kiotoko Protokoloan finkatutako helburuak lortzea beharrezkoa dela, eta, haren Ingurumen Estrategian, lurraldean sortutako berotegi-efektuko gasen emisioak mugatzea eta karbono-hustubideak gehitzea planteatu du, dagokion neurrian, Lurreko klimaren aldaketa ez naturalak mugatzen laguntzeko.

Esparru honetan garatutako jardueren barruan, **“Berotegi-efektua eragiten duten gasen eta CO₂-aren emisioen EAeko inbentarioa (1990-2001)”** egin du 2002. urtean Eusko Jaurlaritzak lehen aldiz eta Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Aditu Taldeak (IPCC) finkatutako metodologiaren arabera. Inbentario horretan, euskal gizarteko sektoreek egindako berotegi-efektua eragiten duten gas nagusien emisioen bilakaera jasotzen da.

Bestetik, eta Kioton hitzartuta bezala berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak gutxitzeko helburua betetzeko konpromisoarekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak eraginkortasun gehiagoko eta ingurumen-inkaktu txikiagoko energia sortzeko zentralak instalatzearen aldeko apustua egin du; pixkanaka, gehiago poluitzen duten zentral termiko tradizionalak (ikatz, fuela) ordezkatu nahi dira. Dударik gabe, garrantzi handien izan duen jarduera **“Bizkaiko Badia proiektua”** izan da.

Azkenik, energia berriztagarriak sustatzeko gauzatzen ari diren jarduera nagusiak hauek dira: **eguzki-energia aprobetxatzen duten babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea** eta **hezkuntza-zentroetan eguzki-energia fotovoltaikoko panelak ezartzea**.

Koadro honetan, 5. xedean 2006ra arte ezarritako 9 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

5. XEDEA. Klima-aldaketaren eragina mugatzea							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop-	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
3	% 33	5	% 55	1	% 11	0	% 0

3.2 JASANGARRITASUNAREN BIDEAN AURRERA EGITEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK INDARTZEKO JARDUERA NAGUSIAK

1. baldintza. Ingurumen-aldagaiak beste politika-alor batzuetan integratzea

Amsterdamgo Ituneko 6. artikulua ezartzen zuenaren arabera, Ingurumena Europako Batasuneko politika eta jarduera guztietan integratu behar zen. Premisa hori Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) ere bilduta dago; izan ere, sektore-politika guztietan (industria, energia, nekazaritza, garraioa, kontsumoa eta turismoa) ingurumena integratzeko estrategiak garatuta jasangarritasuna instituzionalizatzearen aldekoa da estrategia hori.

Horretarako, integrazio hori bermatuko duten jarduera-konpromisoen multzo koherentea ezartzen du estrategiak. Lehena **“Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bateratua arautzen duen dekretua”** formulatzeari dagokio; eta, *Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren 2A* eranskinean biltzen diren planak eta programak egokituko zaizkio dekretuari. Sektoreko plan edo jarduera bat prestatzeko (eta berrikusteko) fasean prozesu sistematiko eta errepikakorra derrigor gauzatu behar dela ezartzen du dekretuak; plan bat aplikatzean, estrategian onartutako ingurumen-konpromisoak zenbateraino bermatzen diren identifikatzeko (eta horren berri emateko), eta horiei dagokienez, planaren eraginkortasuna hobetzeko aukerak identifikatzeko helburuarekin.

Ingurumen-jasangarritasunaren balorazioa, hain zuzen, sortzen diren plan eta programa berrien balorazioa aurrez egin behar delako usteen oinarrituta dago; izan ere, balorazio horrek erabakiak eta neurri praktikoa jasangarriagoak harraraziko ditu. Prozesuaren aurreko faseetan erabilitako denbora konpentsatu egingo da, horrela, etorkizunean egingo diren proposamenek kalitate handiagoa izango dutelako. Aukera guztiak aztertu ondoren, hain jasangarriak ez diren irtenbideak baztertzeko aukera izatea, funtsezkoa da edozein balorazio estrategikotan.

Joan den ekitaldian, Eusko Jaurlaritza buru dela gauzatutako bigarren jarduera nagusia izan da euskal udalerriek plan estrategikoak (**Tokiko Agenda 21**) gara ditzaten egindako apustua; plan estrategiko horiek udalerrietan garapen jasangarriaren eredia sustatzeko egiten dira, mundu mailan ingurumen-arazoak konpontzeko gakoetako bat, hain zuzen, tokiko jardueretan dagoela kontuan hartuta.

Ehunka euskal udalerrri ari dira, jada, Tokiko Agenda 21en prozesua garatzen. 2002ko abenduan, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta hiru lurralde historikoetako 16 udalek, Euskal Udalen Elkartearekin batera (EUDEL), **“Udalsarea 21: Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea”** osatzeko, ingurumena hobetzeko prozesuak bultzatzeko eta tokiko garapen jasangarriaren irizpideak integratzeko koordinazio- eta lankidetzaz foro gisa funtzionatzeko. “Tokiko Agenda 21” diseinatzeko, udalerrri horiek diagnostiko ekonomikoa eta soziala eta ingurumen-diagnostikoa egin dute, datozen urteetarako Ekintza Planak prestatu dituzte eta Plan horren segimendua egiteko Adierazleak finkatu dituzte. Sare horrek **Udaltalde 21**en eginkizuna indartzen du. Lan-taldeak eskualde mailan koordinatuta ari dira Tokiko Agenda 21ak diseinatzen. Gaur egun, Udaltalde 21 hauek ari dira lanean: Mungialdea, Lea Artibai, Urola Garaia, Arratia, Enkarterri eta Debabarrena, Buruntzaldea, Uribe Kosta eta Txorierri.

Koadro honetan, 1. baldintzan 2006ra arte ezarritako 5 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

1 BALDINTZA. Ingurumen-aldagaia beste politika-alor batzuetan integratzea							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
1	%20	2	%40	1	%20	1	%20

2. baldintza. Indarrean dagoen legeria hobetzea eta aplikatzea

Euskal Ingurumen Estrategiak indarrean dagoen legezko esparrua etengabe egokitzea ezarri du, bigarren nahitaezko baldintza gisa, ingurumeneko babes- eta prebentzio-estandar iraunkorrak eta eguneratuak kontuan hartzeko, betiere ezagutza zientifikoa oinarrituta eta ingurumen-politikaren helburuak bete behar direla kontuan hartuta.

Jarduera garrantzitsua **“Uraren legea”** zirriborroa idaztea da, horren helburua baita Euskal Autonomia Erkidegoko arauetan sartzea 2000/60/EE Arteztaruaaren oinarritzko ildo eta edukiak. Arteztarau horrek uraren politikaren eremuan jarduteko esparru komunitarioa ezartzen du, eta, bereziki, uraren eta obra hidraulikoen arloan plangintza-, kudeaketa- eta zerga-erregimenak, urak babesteko eta erabiltzeko oinarritzko ingurumen-helburuak eta urratsak zehazten ditu, eta, azkenik, hornidura-, saneamendu- eta arazketa-arau orokorrak definitzen ditu.

Ingurumen-jasangarritasunari dagokionez, eragin handiko bigarren arau orokor garrantzitsua **“Euskal Autonomia Erkidegoko Hirigintza Lege Orokorra”** da. Legearen aurreproiektuaren –azken ekitaldian amaitu zen eta Legebiltzarrean onartzeko dago– helburu nagusia hirigintzako antolamendu juridikoa arrazionalizatzea da. Halaber, ingurumen-kultura modernotik sortutako irizpide eta balioak ere biltzen ditu; jasangarritasuna ezartzen du hiriaren garapena orientatzeko printzipio gisa, lurraldeko ingurumen-ahalmena errespetatu eta natur baliabideak zain daitezen.

Hirugarren urrats nagusia **“Euskal Industriarekin sektorekako borondatezko ingurumen-hitzarmenak”** egitea izan da. Hitzarmen horiek bat datoz Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Arteztaruaarekin (IPPC 96/61 Arteztarua) eta estatu kideetako ingurumen-hitzarmenei buruz Batzordeak Europako Parlamentuari egiten dizkion komunikazioekin (COM 2002, 412 azkena) –“esparru arautzailea sinpletu eta hobetu” Ekintza Planaren Esparruan–; hain zuzen, enpresa-sektoreek ingurumenaren arloan duten jarrera ebaluatu, kudeatu eta hobetu nahi duten eta etorkizuneko arauari aurre hartu nahi dieten enpresa eta erakundeei zuzenduta daude, administrazioarekin berarekin komunikazio- eta lankidetzaprozesu arin batean.

Besteak beste, Borondatezko Ingurumen Hitzarmen horietan parte hartzen duten erakundeek ingurumen-jarrera, etengabe, indarrean dagoen ingurumen-legeriaz haratago, hobetzeko konpromisoa hartu dute. Gainera, ingurumena kudeatzeko erabiltzen dituzten politikak, programak eta sistemak gainerako industria-sarearekin partekatuzko konpromisoa hartu dute, bai eta enpresan interesa duten alderdi guztiekin (langileak, tokiko agintariak, hornitzaileak, etab.) eztabaida irekiak egiteko ere. Gaur egun arte, Zementuaren, Altzairuaren eta Kimikaren sektoreekin egin dira Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak lantzeko saioak.



Azkenik, aipatu behar da **“Ingurumena ikuskatzeko eta kontrolatzeko euskal plana”** lehen aldiz egin dela; horrekin, ingurumen-legeria bete dadin bultzatuta, ingurumen-kalitatea hobetu nahi da.

Koadro honetan, 2. baldintzan 2006ra arte ezarritako 15 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

2. BALDINTZA. Indarrean dagoen legeria hobetzea eta aplikatzea							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
3	% 13	8	% 53	4	% 27	1	% 7

3. baldintza. Ingurumena merkatuan lehiakortasun-faktore gisa sartzea

Ingurumen Estrategiaren nahitaezko hirugarren baldintza da jasangarritasunarekin batera daitekeen ekoizpen-eredurantz bideratzea, eta horretan, ingurumen-aldagaia merkatu-aukera eta benetako lehiakortasun-faktorea izango da. Helburu hori kontuan hartuta, merkatuari produktuen ingurumen-kostuak islatzen lagunduko dioten hainbat konpromiso programatiko ezartzen ditu.

Arlo horretan garatutako jarduera nagusia izan da, 2002ko ekitaldian –2003an jarraitu du–, lehentasuneko lan-eremu gisa, **ingurumen-fiskalitateari** eman zaion bultzada. Ildo horretan, Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan erabili dituzten tresnak oso ongi aztertu dira, bai eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko aukerak ere. Azterketa hori hiru foru-aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko eta Ingurumeneko arduradunekin batera egin da.

Atal honetan beste zenbait jarduera ere nabarmendu behar dira, hala nola: **“Jasangarritasunerako Enpresen Elkarteak”** martxan jartzea eta **Enpresetan Ingurumena Kudeatzeko Sistemak** bultzatzea. 2002an, EAeko 100 enpresak baino gehiagok lortu duten ingurumen-ziurtagiria (ISO 14001 eta EMAS).

Koadro honetan, 3. baldintzan 2006ra arte ezarritako 4 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

3. BALDINTZA. Merkatuak ingurumenaren alde jardun dezan bultzatzea							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
0	% 0	3	% 75	0	% 0	1	% 25



4. baldintza. Herritarrak, administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzukizunkide bihurtzea eta beren jokabideak jasangarritasun handiagoari begira aldatzea

Ingurumen jasangarritasunaren bidean aurrera egitean, herriko sektore guztiek –baina, batez ere, erabakiak hartu ohi dituzten, eragin handiena duten edota erantzukizun handiena dutenek– esku hartu behar dutela ezartzen du Euskal Ingurumen Estrategiak. Euskal herritarrak kontzientziatzea eta inplikatzeko, beraz, funtsezkoa da. Baldintza hori betetzeko, Estrategiak informazioaren, ingurumen-zaintzaren, hezkuntzaren eta esku hartzen duten eragileen trebakuntzaren eremuetan, bai eta gizartearen parte-hartzearen eremuan ere, hainbat jarduera programatiko gauzatzeko planteatzen du.

Jarduera garrantzitsuenetako bat izan da lehen aldiz antolatu den “**Aste Berdea**” topagunea; horretan, parte hartzeko interesa zuten hainbat eragilek egindako aurrerapenei buruz eta Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-jasangarritasunaren arloko etorkizuneko erronkei buruz eztabaidatu eta iritziak trukatzeko aukera izan zuten. Izan ere, 1.000 pertsonak baino gehiagok hartu zuen parte jardueretan. Jendekopuru hori izan nahi dugu aurten ere, ekaineko Aste Berdean. Ildo horretan bertan, aipatzekoa da, baita ere, 2002ko irailaren hasieran egindako **Mugikortasunaren astea**, garai bateko “Autorik gabeko eguna” delakoari lekukoa hartu diona.

Bestetik, “**EAEko administrazioa ingurumenean trebatzeko plana 2003-2006**” diseinatzeko hasi da. Horren helburua Eusko Jaurlaritzako sail guztietako jardueretan ingurumenaren aldagaia kontuan har dadin bultzatzeko langileak eta funtzionarioak trebatzea da, hartara, jasangarritasuna lortzeko bidea erraztuko duten aldaketak egiteko aukera izango baita. Planak trebatzeko hainbat ekintza proposatuko ditu (mintegiak, tailerrak, jardunaldiak, bisitak, etab.); hainbat sailek batera lantzeko aukera edo, zerbitzu eta atalen arabera trebatzeko, berariazkoak izateko aukera izango da.

Hirugarrenik, Ingurumen Estrategia gauzatu denetik lortutako aurrerapen handietako beste bat “**Eskolako Agenda 21**” deitutakoa garatzea izan da. Ekimen hori hezkuntza-komunitatearen konpromisoa da, ikastetxearen eta bere ingurunearen ingurumen-kalitatearen eta jasangarritasunaren alde lan egiteko. Eskolak gaur egungo gizarte- eta ingurumen-beharrei aurre egin nahi badie, ingurumena ulertu eta horretan parte hartzeko eta ingurumen-hobekuntzarekiko konpromiso-jarrerak eta -balioak sustatzeko, jakintzaz eta gaitasunez hornitu behar du bere burua. Era berean, IIHII zentroen bidez –Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak elkarrekin kudeatutako zentroak–, araututako irakaskuntzan ingurumen-hezkuntza sistematikoki gauzatzen segitzen dela adierazi behar da.

Azkenik, Estrategian hartutako konpromisoak betetzeko esparruan, “**2002ko Ingurumen Adierazleei**” buruzko urteko lehen txostena argitaratu da; txosten horretan Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen-egoeraren garapena azaltzen da, lehen mailakoak direla onartzen diren 22 adierazleren arabera.

Koadro honetan, 4. baldintzan 2006ra arte ezarritako 17 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.



4. BALDINTZA. Herritarrak, administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzukizunkide bihurtzea

Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Egin gabe	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
5	% 29	6	% 35	3	% 18	3	% 18

5. baldintza. Ingurumen-alarreko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza

Gure gizarteak aurre egin behar dien ingurumen-arazoak konpontzeko I+Garen ildoko berehalako jarduerak behar dira, gure ekosistema kontserbatzeko eta zaintzeko irtenbide egokiak eta berariazkoak garatzen lagunduko dituzten jarduerak, hain zuzen ere.

Euskal Ingurumen Estrategiak 2001-2004 *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren* planteamendu estrategikoa biltzen du. Horrek hiru I+G programa espezifiko garatzeko proposamena egiten du: “**Energia garbiena eta arrazoizko erabilera programa**”, “**Ingurumen-sistemaren jasangarritasun-programa**” eta “**Jarduera ekonomikoen eta sozialen ingurumeneko jasangarritasun-programa**”.

Ildo horretan egin diren aurrerapen nagusiak ikerketa eta garapen teknologikoko proiektuak egiten laguntzeko deialdiak egiteari dagozkio; deialdi horiek EAEko eragile zientifiko-teknologikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektoreak berak egin ditu. Hori dela eta, hiru deialdi aipatu behar dira bereziki, garrantzia eta eragin handia dutelako. Lehenik, **Intek ekimena**: horren bidez, EAEko enpresei laguntzak ematen zaizkie berrikuntza eta garapen teknologikoko proiektuak garatzeko, besteak beste, produktu berriak sortzeko I+G proiektuak aurrera ateratzeko eta teknologia berritzeko; hartara, enpresetan ingurumena hobeto kudeatu eta, lehiakortasun-faktore gisa, ingurumeneko osagai teknologikoa kontuan hartzeko aukera izango baita.

Bestetik, **Saiotek programa**: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren EAEko Sarean integratutako eragile zientifiko-teknologikoen jardura-planak egiten laguntzea du helburu. Horretarako, horien espezializazio-eremuetan, ikertzeko eta garatzeko jarduerak finantzatzen ditu.

Azkenik, **Etortek programa**: estrategikotzat hartzen diren ikerketa-eremuak garatzen laguntzeko helburua du. Programa horrek bultzada handia eman dio zientzia/teknologia/enpresa/gizartearen EAEko sistema gaitzeko aukerari, ingurumenarekin lotura handia duten eremuen behar zientifiko-teknologikoak eta berrikuntzak gainditzeak zehazten baitu.

Koadro honetan, 5. baldintzan 2006ra arte ezarritako 5 konpromiso programatikoetan egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

5. BALDINTZA. Ingurumen-alarreko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
1	% 33	2	% 67	0	% 0	0	% 0

4. ONDORIOAK

Lehena. Garapen Jasangarriaren 2002-2020ko Euskal Ingurumen Estrategia abian jarri dela ziurtatzen da

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 onartzea, berez, gertaera historikoa izan da, EAEko plangintza estrategikoaren prozesuan. Horretan, ingurumenaren ikuspegitik jasangarritasunaren prozesuan aurrera egiteko EAEko gizartearen helburuak, irizpideak eta konpromisoak biltzen dira. Estrategia diseinatzeko prozesuan gizarteko eta instituzioetako eragile nagusiek hartu zuten parte; baina, are garrantzitsuagoa da, horiek guztiek hartu duten konpromisoa, esku-hartze maila, funtsezkoa baita finkatutako helburuak lortzeko.

Euskal Ingurumen Estrategia ez da administrazioa programatzeko dokumentu hutsa izango; aitzitik, erreferente bizi eta dinamikoa izango da EAEko eragile eta herritar guztientzat, jasangarritasunaren bidean aurrera egin nahi duen, eta aurrera egiten duen, gizarteko kide gisa erabil dezaten.

Txosten honetan azaltzen den bezala, jarduera ugari eta garrantzitsuak garatu dira, Estrategia onartu zenetik, ingurumena planifikatu, arautu eta kudeatzeari dagokionez. Adibidez: lurzorua eta ura baliabideak kudeatzeko arau-esparrua prestatzea, garraioaren arloan planifikatzea, hondakinak kudeatzea eta lurraldea antolatzea.

Oro har, koadro honetan, Estrategian azaltzen diren 2006ra arteko 141 konpromiso programatikoetan gaur arte, bai xedeetan bai baldintzetan, bai eta segimenduan ere, egindako aurrerapenen laburpena azaltzen da.

KONPROMISO PROGRAMATIKOETAN EGINDAKO AURRERAPENEN LABURPENA							
Hasi gabe		Hasita		Aurreratuta		Amaituta	
kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
28	% 20	69	% 49	30	% 21	14	% 10

Azken ondorio hauetan, aipatzekoa da estrategian ezarritako helburuak betetzeko segimendua egiteko eta ebaluatzeko mekanismoetan sakondu eta, dagokionean, garapenean behar diren zuzenketak sartzeko beharra. Alderdi horretatik, ingurumen-adierazleen sistema integralaren doitze-lanaren egoera aurreratua egoteaz gain, estrategian bildutako zenbait konpromiso kuantitatibok ez du horri lotutako adierazleen jokaerari buruzko informaziorik. Informazio-muga horrek ez du horiek guztiak zorrotz eta sakon esploratzeko aukerarik ematen. Eta, hori, hain zuzen ere, hurrengo ekitaldietan zuzendu beharreko egoera da, informazioa planifikazio onaren oinarri-oinarria baita.



Bigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren egoera hobetzen ari da, baina arazo batzuek bere horretan jarraitzen dute, oraindik ere

Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumenaren egoerari dagokionez, 2002ko Ingurumen Adierazleen txostenaren ondorioek adierazten dute uraren, airearen eta lurzoruaren kalitatean, hondakinen kudeaketan eta tokiko eta enpresako jasangarritasunean garapena positiboa izan dela. Bestalde, natur baliabideen (ura, energia, materialak eta lurzoria) kontsumoan, sortutako hondakin-kantitatean (hiriko hondakinak batez ere), berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioetan eta tokiko mugikortasunaren arloan kontrako joera dagoela adierazten du.

Hirugarrena. Ingurumenaren jasangarritasuna sektore-politikan integratzeko prozesuan sakondu behar da

Ingurumen-politikak ezin die berak bakarrik ingurumenarekin lotzen diren arazo guztiei irtenbidea eman. Beraz, ingurumen-helburuak politika publiko guztietan integratu behar dira. Administrazioari, gainera, ingurumena hondatzea eragozteko planak eta programak ezartzeko aitzindari izan dadila eskatzen zaio.

Lehen ekitaldi honetan aipatzekoa da jasangarritasunaren mezuak izan duen *barneratze-maila*. Horren ondorengo erronka izango da erabakiak hartzeko lanean mezu hori sakon txertatzea. Hori dela eta, *Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bateratua arautzen duen dekretua* martxan jartzea urrats garrantzitsua izango da integrazioari dagokionez; izan ere, modu eraginkorrean bermatu behar du, plan eta programa publikoak definitzean ingurumen-konpromisoa kontuan hartuko dela, batez ere, ingurumenari dagokionez garrantzitsutzat jo diren sektoreetan (industria, garraioa, lehen sektorea, energia eta etxebizitza). Halaber, administrazioko funtzionarioentzat integrazio hori sustatzeko Ingurumen Trebakuntza Plan bat ari dira diseinatzen.

Dena dela, oraindik asko dago egiteko integrazioaren eremuan eta esku hartzen duten eragileen arteko koordinazioan. Izan ere, instituzioetako eragileek garatutako jarduera bateratu esanguratsuez gain, garrantzitsua da onartzea eta kontziente izatea kudeaketa operatiboak eta estrategiaren gauzatzeak ez dutela, oraindik, nahi adinako integrazio-maila lortu. Horretarako, praktikan eratu behar dira Ingurumen Estrategiaren Segimendua egiteko *Ingurumen Batzordea eta Instituzio arteko Talde Teknikoa*, administrazioak gauzatutako ekintzak koordinatzeko eta integratzeko tresna gisa. Sektore-politikan ingurumen-jasangarritasuna behar bezala integratzeak eskatuko luke politika horietan Garapen Jasangarriaren 2002-2020ko Euskal Ingurumen Estrategian bertan ezarritako helburu eta konpromiso propioak biltzea.



Laugarrena. Herritarrak gehiago inplikatu behar dira

Gaur egungo ekoizpen-eredua eta kontsumoa sistema jasangarriago batera aldatzeko, *gizarteak esku-hartzeko* prozesu garrantzitsua gertatu behar dela adieraztea garrantzitsua da. Horretarako, derrigor, komunikazio-sistemak hobetu eta herritarrak mobilizatu behar dira, horiek berak eska eta exiji ditzaten ekoizpen-sistema eta kontsumo-eremu jasangarriagoak.

Finean, agintzeko modu berri bat da, administrazioa gehiago hurbilduko zaio herritarrari, zein kezka duen galdetuko dio, arazo bakoitzari irtenbide egokienak bilatzen eta aplikatzen parte hartzeko gonbita egingo dio eta, gainera, lortutako emaitzen ebaluazioa egingo du herritarrarekin batera. Kudeaketa publikoan bikaintasun-eredu baten aldeko gardentasunari beldurra galdu behar zaio. Ildo horretan, 2 urtean behin egiten den Ekobarometro Soziala arlo horretako aurrerapen-maila neurtzeko tresna eta adierazle egokia da.

Funtsean, garapen jasangarriaren aldeko apustua jakintzan oinarritzen da eta ondo gobernatzearen oinarrian dauden printzipioen ondorio da: gardentasuna, koherentzia, eraginkortasuna, kontrol eta parte-hartze publikoa. Eta, horrela, bizi-kalitatea handitzea, eta baliabideen erabilera eta ingurumen-degradazioa erabat txikitzea lortzen du.

Bosgarrena. Garapen Jasangarriaren Ingurumen Estrategiaren 2004ko erronka nagusiak

Euskal Ingurumen Estrategiak argi eta garbi ezarri du konpromisoak eta helburuak lortzeko denbora-esparrua. Nolanahi ere, strategiaren garapenean esku hartzen duten eragileen etengabeko hausnarketa-prozesuaren eta estrategia baldintzatzen duten kanpo-dinamiken ondorioz, datorren ekitaldian ikuspegi programatikotik garapen eta bultzada handiagoa izan behar zuten erronkak nabarmendu behar dira –berriagoak direlako eta ingurumen-sisteman izan dezaketen inpaktu-mailarengatik–.

Erronka estrategiko bat jasangarritasunerako prozesuan oinarritzko alderdi hau garatzea da: **ekoizpen eta kontsumo jasangarriak**. Ondasun eta zerbitzuen bizi-zikloan natur baliabideen eta material toxikoen erabilera, poluitzaileen emisioak eta hondakinen sorrera minimizatu behar dira. Ezarritako ekoizpen-ereduan ingurumen-aldagaiaren pertzepzioa aldatzean, kostu gehigarri gisa ikusi beharrean, ingurumena sektore ekonomikoetako ekoizpen-ziklo osoan sartu beharreko lehiakortasun-tresna gisa hartuko da (ekoizpen garbia).

Alabaina, zenbait sektoretan, oraindik ere, ez da lortu hazkunde ekonomikoa eta inpaktuen sorrera bereiztea (sektorearen ekoeraginkortasuna); beraz, tresna berriak ezarri behar dira. Tresna horiek definitzean eta gauzatzean, enpresak eta herritarrak izan behar dira kontuan, eta merkatuko mekanismoen arabera funtzionatu behar dute. Hurrengo ekitaldian, erronka handienetako bat izango da tresna berriak (borondatezko hitzarmenak, etiketatze ekologikoa, etab.) kontuan izango dituzten estrategiak eta programak diseinatzea. Estrategia eta programa horiek ingurumen-sektore eta arlo hauek bilduko dituzte:

Euskal energia-estrategia

Kontsumo jasangarriari buruzko arauak

Eraikuntza jasangarriari buruzko arauak

Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzorua Babesteko Legea eta Lurzoru Poluituen Plana

Zarata-maila handien eraginpean dagoen populazioa murrizteko estrategia

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana

Biodibertsitateari buruzko Trebakuntza, Hezkuntza eta Sentsibilizaziorako ingurumen-plan estrategikoa

Seigarrena. Ingurumenaren arloan garapenaren lankidetzak indartu egin behar da

Ingurumenaren arloan, eskualdeko beste gobernuekin elkarrekin aktiboki lan egiten hasi da, NRG4SD (Garapen Jasangarrirako Eskualdeetako Gobernuen Sarea) bidez. Hauek dira Sare horren helburuak: maila globalean, sareko kideen ordezkari izatea, eskualdean Garapen Jasangarria sustatzea, mundu osoko eskualdeetako gobernuekin garapen jasangarriari buruzko politiken inguruko esperientziak eta informazioa partekatzea, NRG4SDko kideen arteko ulermena, lankidetzak eta elkartzea sustatzea, Garapen Jasangarrirako Eskualdeetako Gobernuen ekarpena nazioartean aitortzea bilatzea eta Nazioarteko Erakundeetan eta gobernu nazionaletan ordezkari izatea. Eusko Jaurlaritza harremanetan jarri da Brasil eta Indonesiako beste eskualdeetako gobernu batzuekin, eta, ondorioz, laster lankidetzak-hitzarmenak lortzeko aukera dago.

Donostiako 2. Biltzarrean –2003ko martxoa– 52 eskualde-gobernuk eta eskualde-elkartek hartu zuten parte. Horretan, NRG4SDrako hasierako egitura hitzartu zen –5 kontinenteetako kideek hartu zuten parte–, erakunde kudeatzailea definitu zen –Euskal Autonomia Erkidegoak lehendakarikide gisa eta bitarteko idazkari gisa hartu zuen parte– eta munduko beste eskualde-gobernu batzuei sarean parte hartzeko gonbita egiteko gutuna idatzi zen. 3. Biltzarra, datorren udazkenean izango da Perth-en (Mendebaldeko Australia) eta hurrengo urteetako lan-planak zehaztu beharko dira.